



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko irailaren 13a

86. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

—Lankidetz hitzarmena, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean lanerako prestakuntza zentro nazionalen arloan (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errepideen plan zuzendarian sar dezan Zangozan sartzeko zubi berri baten eraikuntza. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen ekin diezaion Isoko tunelaren obrari. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea hobetzeko proiektuak alda ditzan eta Sunbillatik Gipuzkoako mugara bitarteko tarte autobia bihur dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-140 errepidea hobetzeko lanei ekin diezaion Auritz-Ezkaroze eta Otsagabia-Izaba tartetan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoa handitzeko proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko deklarazioa atzera bota dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Ministerioko Kalte Klimatikoen Batzorde iraunkorren parte ez hartzeari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egin (12. or.).

—Galdera, Iruñerriko Mankomunitateak taxi lizentziak adjudikatzeak sortutako dirusarrerari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (13. or.).

- Galdera, abeltzaintzaren sektorean lehortearen ondorioz hartu beharreko neurriei buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (13. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bisitetarako egun dagoen protokoloari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean inurri hegalariak agertu zirela-eta aldi baterako itxi izanari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).
- Galdera, zenbait sendagilek egindako grebaren ondorioz sortutako atzerapenari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).
- Galdera, harzuriaren sektorea suspertzeko hartutako neurriei buruzkoa, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egina (17. or.).
- Galdera, udalei laguntza tekniko emateko bulegoak abian jartzeari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (18. or.).
- Galdera, Tutera eta Ejea de los Caballeros lotzen dituen NA-125 errepidea hobetzeko lanei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Castejóngo zentral termikoak osasunean nahiz ingurumenean dituen ondorioei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, “Reyno de Navarra” irudiaren publizitatea egiten duten kirol taldeei dirulaguntzak emateari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (20. or.).
- Galdera, gobernu kanpoko zenbait erakunderi 1996az geroztik funtsak itzultzeko irekitako espedientei buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroan dagoen itxaron zerrendari, irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza ikastaroei eta Gozamenez programari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (22. or.).
- Galdera, adingabeen tabakoa saltzeko debekuari buruzko legeria indarduna betetzen dela ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak egin duenari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (22. or.).
- Galdera, langileen zerrendan funtzionarioen gradua ez argitaratu izanari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (23. or.).
- Galdera, tresna elektriko eta elektronikoei eta hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretuak indarra hartzearen inguruko zenbait gairi buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (24. or.).
- Galdera, lehortea jasaten ari diren Nafarroako eremuak hautatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (25. or.).
- Galdera, lehortea eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (26. or.).
- Galdera, udalei euren lurrek izan dezaketen devaluazioa dela-eta emanen zaien ordainari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko zerbitzu zentralak sanferminetan izandako funtzionamenduari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (27. or.).
- Galdera, obra-hondakindegia sortzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Ibilgailuen Azterketa Teknikorako instalazioei buruzkoa, foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak egina (29. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (30. or.).

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean lanerako prestakuntza zentro nazionalen arloan.**

Nafarroako Parlamentuko 162. artikuluko ezaugarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut: "Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean lanerako prestakuntza zentro nazionalen arloan".

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean lanerako prestakuntza zentro nazionalen arloan**

**BILDURIK**

Alde batetik, Valeriano BAÍLLO RUIZ jauna, Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusia, apirilaren 23ko 839/2004 Errege Dekretuaren bidez izendatua (apirilaren 24ko Espainiako Aldizkari Ofiziala) eta lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikuluko 1. idatz-zatian, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez emandako idazketarekin bat etorritik, ezarritakoari jarraikiz.

Bestetik, José Javier ARMENDARIZ QUEL jauna, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria, uztailaren 2ko 17/2003 Foru Dekretuaren bidez izendatua (2003ko uztailaren 3ko 84. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) eta ekitaldi honetarako ahalmena duena, Nafarroako Gobernuak .....(e)ko .....aren .....(e)an hartutako erabakiari jarraikiz.

**AZALTZEN DUTE**

1.- Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren

26ko 30/1992 Legeko 6. artikuluko 1. idatz-zatiak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez eman zitzaion testuan, ahalmena ematen dio estatuko administrazio orokorrari edota haren menpeko edo harekin lotura duten erakunde publikoei lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko autonomia erkidegoetako administrazioetako organoekin, nork bere esku-menaren esparruan.

Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi zen Administrazio publikoen kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 3. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letran ezartzen denez, aipatu legearen aplikazio esparrutik at daude estatu administrazio orokorrak autonomia erkidegoekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenak.

Horren ondorioz, estatuko administrazio orokorrak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren erakunde autonomoaren bidez, eta Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena dute proposatutako lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko. Hitzarmen hau Administrazio publikoen kontratuei buruzko Legearen aplikazio esparrutik kanpo geratuko da, izan daitezkeen zalantzak argitzeko eta hutsuneak betetzeko izan ezik; kasu horietan, lehen aipaturiko legearen testu bateginean jasotako printzipioak aplikatuko zaizkio.

2. Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu zuen lanerako lanbide heziketaren kudeaketa eskualdaketa abuztuaren 1eko 1319/1997 Errege Dekretuaren bidez. Halaber, maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaion Enplegu Institutu Nazionalak egiten zuen kudeaketa, lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren alorretan. Eskualdatze horrek eragina du 1999ko urriaren 1etik.

3. Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen lehen xedapen gehigarrian ezartzen denez, Enplegu Institutu Nazionala Estatuko Enplegu Zerbitzu Publiko bihurtu zen. Hala

ere, ez ziren aldatu haren araubide juridikoa, ekonomikoa, aurrekontuari, ondareari eta langileei buruzkoa, ezta estatuko administrazio orokorreko erakunde autonomo izaera ere.

4. Enplegu Institutu Nazionalak, orain Estatuko Enplegu Publikoko Zerbitzuak, lanerako lanbide heziketako zentro nazionalen bidez betetzen zitu- en eskumenak lanbide heziketa programa nazio- nalean ezartzen ziren. Programa hori 1993ko mar- txoaren 5eko Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsi zen, eta bertan jasotzen denez, lanbi- de heziketa sistemaren kalitatearen arloan lortu beharreko helburuetako bat da lanerako lanbide heziketako zentro nazionalak sendotzea; izan ere, zentro horien eginkizun nagusia da lanerako hezi- ketaren sistema antolatzea eta lanbide familiak aztertzea estatu osorako.

Gaur egun, aipatu zentro nazionalak lehen azaldutako helburuak garatu eta kudeatzen dituzte eta, besteak beste, laguntza ematen dute lanerako lanbide heziketa sistema gaurkotzeko eta antola- tzeko, lan merkatuan bitartekari eginkizuna bete- zeko, irakasleen prestakuntzarako programaren bidez sistemaren kalitatea hobetzeko, lanbide heziketaren arloan ikertzeko eta berrikuntzak sar- zeko eta Europar Batasuneko nazioarteko ekime- nak eta programak gauzatzeko, estatuaren eremu- an eta esleitutako arlo funtzionalan.

5. Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusia, lan- bide heziketaren arloan, kontsultak egin, Gobernu- ari aholkuak eman eta administrazio publikoen partaidetzarako organoa da eta bertan ordezkari- tza dute autonomia erkidego guztiek. Organo horrek parte hartzen du lanbide heziketaren arloko politiken berrikuntzan eta politika horiek gauzatu- ko dituzten tresnen garapenean; hain zuzen, lanbide heziketako programa nazional berria, laneratzeko prestakuntza plan nazionalaren araubidea, lanbi- de-prestakuntzen sistema nazionala eta Lanbide- prestakuntzen Institutu Nazionala. Esparru horre- tan, lanerako lanbide heziketako zentro nazionalak estatu osorako diseinu, egitura eta antolamenduz- ko eginkizunak dituzte, eta hori dela eta, bi admi- nistrazioen helburuak koordinatu behar dira, zen- tro nazional berean elkartzen baitira.

6. Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu zuen lanerako lanbide heziketaren kudeake- ta eskualdaketa abuztuaren 1eko 1319/1997 Erre- ge Dekretuaren bidez. Halaber, maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zaio Enplegu Insti- tutu Nazionalak egiten zuen kudeaketa, lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren alorretan. Aurre- rago, berriz, bi dekretu horien bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatutako baliabideez

gain beste batzuk eskualdatzeari buruzko martxo- aren 23ko 311/2001 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateari 900.000.000 peze- ta eskualdatu zitzaizkion, aldi bakar batean eta eskualdatutako zerbitzuen estatuko urteko kopuru osoan sartu gabe, lanerako lanbide heziketa zen- tro nazional gisa sailkatutako zentro baten eraikun- tza eta dotazioa finantzatzeko, VII. Ataleko kreditu- aren kargura. 2001. urterako estatuko aurrekontu orokorraren abenduaren 28ko 13/2000 Legearen bidez horretarako baimena eman zen Enplegu Insti- tutu Nazionalako aurrekontuaren gastuen egoe- ra-orrian.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Industria, Merkata- ritza Turismo eta Lan Departamentuaren arteko akordioaren bidez, Nafarroako Imarkoango Ener- gia Berriztagarrien Lanerako Lanbide Heziketa Zentro Nazionala sortzea erabaki zen. Akordio hori Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak 2001eko otsailaren 15ean eta 2001eko azaroaren 19an egindako bileretan jaso zen. Batzorde hori sortu zen Enplegu Institutu Nazionalak lanaren, enple- guaren eta prestakuntzaren alorretan egiten zuen kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateari eskual- datzeari buruzko maiatzaren 14ko 811/1999 Erre- ge Dekretuaren bidez, eta halaxe dago jasota batzordearen bilera horiei dagozkien data bereko aktetan.

7. Laneratzeko prestakuntza plan nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 631/1993 Errege Dekretua aldatzen duen irailaren 27ko 1936/2004 Errege Dekretuak testu berria eman zion lanerako lanbide heziketako zentro nazionalen zerrendari, eta bertan jaso zuen Imarkoango zentroa, energia berriztagarrien prestakuntza arloan.

Zentro nazional hori eraiki eta kalifikatu denez, bidezkoa da estatuko administrazio orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa- ren eskumeneko ahalmenak eta jarduketak coordi- natzea, aipatu zentroari dagokionez.

Horrenbestez, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidea- ren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 4. eta 6. arti- kuletan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitar- tez eman zitzaion testuan, ezarritakoari jarraikiz, bi aldeek lankidetzan hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmena arautuko duten

#### KLAUSULAK

**Lehenengoa.** Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da bi administrazio publikoen arteko lankidetzan, Imarkoango Lanera- ko Lanbide Heziketa Zentro Nazionalari buruz

bakoitzak dituen eskumenen esparruan, estatuko administrazio orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumeneko ahalmenak eta jarduketak koordinatze aldera, aipatu zentroari dagokionez.

**Bigarrena.** Hezkuntza-ekipamenduaren erabilerera.

Zentro nazionalaren hezkuntza-ekipamenduak lehentasunez erabiliko dira Laneratzeko prestakuntza plan nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 631/1993 Errege Dekretuko 17. artikuluan jasotako izaera nazionala duten eginkizunetarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egokitzat jotzen dituen beste prestakuntza ekintza batzuetarako erabiltzea eragotzi gabe.

**Hirugarrena.** Lan plana.

631/1993 Errege Dekretuko 17. artikuluan jasotako eginkizunak garatze aldera, eta kontuan hartuta lanerako lanbide heziketaren arloan eskumenak dituzten organoek eginiko proposamenak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak urteko lanplan baten proiektua prestatuko du Imarkoingoa Lanerako Lanbide Heziketa Zentro Nazionalerako.

Plan hori bosgarren klausulan araututako Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak onetsiko du. Zentroak urteko lan-plana beteko du, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak horretarako emandako finantziazioaren bidez. Horretarako, kontuan hartuko ditu urteko lan-planean ezarritako zenbatekoak, baita plana gauzatu ahal izateko baliabideak edo prozesuak ere.

**Laugarrena.** Estatuaren eginkizunei ematea.

Arrazoi teknikoak edo bestelakoak direla medio, lankidetzaren hitzarmen honetan aipatzen den zentro nazionalak ezin izanen balu garatu esleitura duen arloari dagokion estatuaren eginkizunetakoaren bat –salbuespenez edo behin betikoz–, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak eginkizun horiek gauzatu ahalko ditu sareko beste zentro batzuetan edo egokitzat jotzen duen beste tokiren batean, baldin eta hala erabakitzen bada bosgarren klausulan araututako Koordinazio eta Jarraipen Batzordean.

**Bosgarrena.** Hitzarmenaren koordinazio eta jarraipen batzordea.

Estatuko administrazio orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko koordinazio egoia bermatze aldera, Enplegu Institutu Nazionalak –egun Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa– lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren alorretan egiten zuen kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeari buruzko maiatzaren 14ko

811/1999 Errege Dekretuaren bidez sortutako Koordinazio eta Jarraipen Batzordea izanen da baita ere lankidetzaren hitzarmen honen Koordinazio eta Jarraipen Batzordea. Halaber, batzorde horrek ondoko eginkizunak izanen ditu:

1. Hitzarmen honen hirugarren klausulan aipatzen den urteko lan-planaren prestaketa bermatzea.

2. Urteko lan-plana onestea.

3. Etengabeko informazio trukea eta koordinazioa, lanerako lanbide heziketako zentro nazionalen lankidetzaren sustatze aldera, estatuko izaera duten eginkizunetan.

4. Urteko lan-planak eta horiei dagozkien jarduerak garatzeko gauza, giza eta finantza baliabideak zehaztea.

5. Hitzarmen honekin zerikusia duen beste edozein eginkizun.

Batzordearen barruan lantalde bat sortuko da, “Lanerako lanbide heziketako zentro nazionalen arloko lankidetzaren hitzarmenaren Koordinazio Azpibatzaordea” izenekoak. Aipatu koordinazio azpibatzaordeak lankidetzaren hitzarmenarekin zerikusia duten Batzordearen eginkizunak beteko ditu, Prestakuntza Zentro Nazionallean sor daitezkeen gora-beheren jarraipena egingen du, gerta daitezkeen funtzionamendu arazoei irtenbide azkarra emate aldera. Azpibatzaordea Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko lau ordezkari eta Nafarroako Foru Komunitateko lau ordezkari osatuko dute eta sei hilabete behin bilduko da, gutxienez, edo alde sinatzaile batek eskatzen duenean.

**Seigarrena.** Zuzenbide-arau osagarriak.

Aurreko arauak espresuki arautzen ez dituzten gaietarako, aplikagarria izanen da Herri administrazioaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez eman zitzaion testuan, ezarritakoa.

**Zazpigarrena.** Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honek eragina izanen du sinatzen den une beretik 2005eko abenduaren 31ra arte.

Hitzarmena automatikoki luzatuko da, urtebete naturaleko epeetan, bi alderdietako edozeinek salatu ezean.

Aurreko lerrokadan aipatutako salaketa, betiere, kasuan kasuko indarraldia amaitu baino sei hilabete baino lehen egin beharko da. Salatutako hitzarmenean jasotako konpromiso guztiek indarra

izanen dute hitzarmenaren beste testu bat onetsi bitartean.

Aldeetako batek hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, beste administrazioak eskubidea izanen du hitzarmena salatze-ko eta ebazteko, aurreko lerrokadan azaldutakoari jarraikiz.

**Zortzigarrena.** Jurisdikzioa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa duenez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak iza-

nen du eskumena hitzarmena betetzearen ondorioz sor litezkeen gatazkak ebazteko.

Eta hitzartutako guztiarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute .....en, 2005eko .....aren ....(e)an.

Estatuko Enplegu Zerbitzuko Publikoko zuzendari nagusia: Valeriano Baíllo Ruíz

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errepideen plan zuzendarian sar dezan Zangozan sartzeko zubi berri baten eraikuntza.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errepideen plan zuzendarian sar dezan Zangozan sartzeko zubi berri baten eraikuntza".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatu eta onesteko, Nafarroako Gobernua premiatzeko errepideen plan zuzendarian sar dezan Zangozan sartzeko zubi berri baten eraikuntza, Aragón ibaiaren gainean:

Justifikazioa.

Gaur egun, Zangozako sarrera nagusia Aragón ibaiaren gaineko metalezko zubia da, eta horren ondorioz, trafikoa etxegune historikotik eta Santa Maria elizaren aurretik igarotzen da. Hain zuzen, eliza horren balio eztabaiaezina da, monumentu

nazional deklaratu zuten eta bere portalea Santiago bideko ederrentzat hartzen da.

Ibilgailuen trafiko handiak sortzen duen kutsadura eragina du portale horren kontserbazio egoeran, eta halaxe egiaztatu ahal izan zuen duela gutxi Zangozara bisita egin zuen Nafarroako Parlamentuko ordezkariak.

Bestalde, trafiko handia izaten da etxegune historikoan eta hirigunean, eta gunehori Erdi Arokoa denez eta kale estuak dituenek, ez dago prestatua hain trafiko trinkoa jasateko. Gaur egungo zubiak ere behar izan ditu zaharberritze eta mantentze lanak, bai zati metalikoak, bai harlanduzko zatian, hondatuta baitago.

Zangozaren etorkizuneko garapenak, udalak erdigunetik trafikoa kentzeko –kale nagusia oinezkoentzat bihurtzea, inguruko orubeetan aparlekuak jartzea– eta hiriko jarduera, merkataritza eta zerbitzuak berriro bultzatzeko hartutako neurriek foru erakundearen parte-hartzearekin soilik gauzatu daitezkeen garrantzi handiagoko jarduketak eskatzen dituzte.

Azaldutako guztiagatik, beharrezkoa da zubi berri bat eraikitzea, eta horretarako, jarduketa hori indarrean dagoen Nafarroako errepideen plan zuzendarian sartu behar da, duela gutxi Zangozako Udaleko udal talde guztiek aho batez onetsi zuten moduan.

Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errepideen plan zuzendarian sar dezan Zangozan sartzeko zubi berri baten eraikuntza, Aragón ibaiaren gainean.

Iruñean, 2005eko uztailaren 1ean

Eleduna: Fernando Puras Gil

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen ekin diezaion Isoko tunelaren obrari.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen ekin diezaion Isoko tunelaren obrari"

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Mahaian, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernua Isoko tunela bezala eza gutzen den NA-178 errepideko tartea hobetzeko lanak atzeratzen ari da. Zaraitzu eta Foru Komuni-

tateko gainerako eskualdeak komunikatzen dituen errepideko gune hori da ibar horretako biztanleentzat eta jarduera ekonomikoetarako behar den komunikazio erraza eta erabilgarria zailtzen, arriskutsu bihurtzen eta atzeratzen dituen elementu nagusia. Helburua bada lurraldearen garapen orokorra eta herritarrek zerbitzu eta aukera berdinak izatea, beharrezkoa da administrazioak helburu horiek lortzea galarazten duten arazoei aurre egitea eta konpontzea.

Komunikazio bideak pertsonen, salgaien, jardueren eta zerbitzuen mugikortasunaren gakoa direnez, beharrezkoa da lehenbailehen lanei ekitea Isoko mendateak errepide horretako puntu beltz izateari utz diezaion, eta NA-178 errepideak Irunberri eta Otsagabia artean duen trazadura osoa hobetzeko lanei ekitea ere bai, Zaraitzun bizitzarako eta garapenerako aukera izan dadin.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NA-178 errepideko (Irunberri-Nabaskoze) Isoko tunelaren obrari ekiteko beharrezkoak diren urratsak edo prozedurak lehenbailehen egin ditzan.

Iruñean, 2005eko abuztuaren 24an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea hobetzeko proiektuak alda ditzan eta Sunbillatik Gipuzkoako mugara bitarteko tartea autobia bihur dezan.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea hobetzeko proiektuak alda ditzan eta Sunbillatik Gipuzkoako mugara bitarteko tartea autobia bihur dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin

agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Beharrezkoa da N-121-A errepideari behin betiko eta etorkizunerako konponbidea ematea; izan ere, garraio astunaren benetako komunikazio bide bihurtu da praktikan, eta trafiko handia jasaten duen arren, bere egoera XX. mendeko errepideena da.

Nafarroako Gobernuak, agian nahita, ikuspegi motza erakutsi du hobekuntza proiektuak zehazterakoan, eta horrek agerian utzi du proiektu horiek noizbait erabat betetzen badira –izan ere, atzerapen handiz egiten ari dira–, ez diotela erantzungo aipatu errepidea erabiltzeko eskaerei, ezta etorkizuneko komunikazio bide baten ezaugarri ere.

Nafarroako Gobernuak eginiko apustuak ez du zentzurik, ezta etorkizunik ere; gainera, arriskuan jartzen ditu errepide horren erabiltzaile guztiak. N-121 errepidea Foru Komunitateko errepideetako puntu beltz nagusi bihurtu da. Harritzekoa da ikus-tea nola Nafarroako Gobernuak ezer egin gabe geratzen den errepide horretan izaten diren eten-

gabeko istripuen eta horien ondoriozko hildakoen kopuruaren aurrean, horren jakitun izan arren. Jokabide hori kontraesanean dago administrazioek zirkulazio arrisku eta istripuak murrizteko abian jarritako estrategia guztiekin.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du oraindik bete gabe dauden N-121 errepidea hobetzeko proiektuak alda ditzan eta errepidearen bikoizketa kontuan hartu eta Sunbillatik Gipuzkoako mugara bitarteko tartea autobia bihur dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin berriro negoziatzen dezan bi administrazio horiek N-121-A errepideko Endarlatsa-Behobia tartea konpontzeko sinatu zuten ituna, itun berrian tarte horren bikoizketa eta autobide bihurtzea aurreikus- teko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du jarduketa horiek premiazkoztat jo ditzan eta, hala izanda, horretarako beharrezkoak diren urrats guztiak lehenbailehen egin ditzan.

Iruñean, 2005eko abuztuaren 24an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du N-140 errepidea hobetzeko lanei ekin diezaien Auritz-Ezkaroze eta Otsagabia-Izaba tartetean.**

**ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du N-140 errepidea hobetzeko lanei ekin diezaien Auritz-Ezkaroze eta Otsagabia-Izaba tartetean."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin

agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Mahaian, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2002-2009 aldirako errepideen planean N-140 errepideko hobekuntza lanak jasotzen dira 2005-2006 aldirako; hala ere, gaur egun, parlamentu-talde honek dakiela behintzat, ez da konpromiso hori betetzeko urratsik egin. Era berean, gure ustez, hobekuntza horretarako ezarritako ezaugarri teknikoek ez diete erantzuten Pirinioetako ibarretako mugikortasunerako eta garapen sozioekonomikorako beharrazanei.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pirinioetako zeharbidea bezala ezagutzen den N-140 errepidearen hobekuntza lanak aurreikusitako epean egin ditzan, Auritz-Ezkaroze eta Otsagabia-Izaba tartetean, errepide hori komunikazio-ardatz moderno, baliagarri eta eraginkorra izan dadin, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari Pirinioetako ibarren arteko komunikazioa bermatzeko, baita, aldi berean, ibar horien eta Nafarroa osoaren artekoa ere.

Iruñean, 2005eko abuztuaren 24an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoa handitzeko proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko deklarazioa atzera bota dezan.**

**ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoa handitzeko proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko deklarazioa atzera bota dezan"

Nafarroako Parlamentuko Mahaian, 2005eko irailaren 5an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu

du Nafarroako Parlamentuko Mahaian, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Iragan otsailaren 16an indarrean sartu zen Kiotoko Protokoloak helburu zehatzak eta lotesleak ezartzen ditu sinatzaile guztientzat; hain zuzen, klima aldaketa eragiten duten negutegi-efektuko gasen isurien hazkuntza murriztera behartzen ditu 2012. urtera bitartean. Horren bidez, Espainiako Estatuak soilik % 15 handi ditzake bere emisioak 2012. urtean, 1990eko emisioak erreferentziaz hartuta. Hala ere, 2004. urteko isuriek % 45ean gaintu dituzte 1990ekoak, Horren ondorioz, data horretatik orain arte bere emisioak gehien handitu dituen herrialde industrializatuak da, ituna berretsi dutenen artean, baita itunak ezarritakoa gutxien betetzen duen Europar Batasuneko estatua ere, Irlandarekin batera.

Kiotoko Protokoloak ezarritakoa betetze aldera, Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren urriaren 13ko 2003/87/EK Zuzentaraua onetsi zen. Horren bidez, emisio-eskubideen merkataritzarako araubidea ezartzen da eta 2005. urtetik aurrera kasuan kasuko baimena izateko betebeharra ezartzen zaie industria kutsaga-

rrieti. Hori dela eta, negutegi efektuko gasen emisio-eskubideen merkataritzaren araubidea ezartzen duen abuztuaren 27ko 5/2004 Errege Lege Dekretua onetsi zuen Gobernuak, eta,aldi berean, abian jarri zuen esleipenen plan nazionala, non ezartzen baita industriaren sektoreak gehienez ere isur ditzakeen gas-emisioen muga 2005-2007 aldirako. Plan horrek erantzuten dio Europako Kontseiluaren apirilaren 25eko 2002/358/EK Erabakia betetzeko betebeharrari; hain zuzen, Europako Erkidegoaren izenean Kiotoko Protokoloa, Klima aldaketari buruzko Nazio Batuen konbentzio markoa eta horrek dakartzan konpromiso guztiak betetzeari buruzkoa.

Esleipenen plan nazional horrek ukitutako industrietatik 20 Nafarroan daude, horien artean Castejónko ziklo konbinatuko bi zentral termikoak. Zentral horiek Foru Komunitateko CO<sub>2</sub> emisioen % 55 isuri ahalko dute atmosferara aurtan (1,8 milioi tona CO<sub>2</sub>), baina Gobernuaren planaren arabera, emisio horiek % 20 murriztuko dira hurrengo bi urteetan.

Aurreikuspen itxaropentsu hori ez da beteko kasuan kasuko sustatzaileek (Elerebro eta Iberdrola) eskatu dituzten eta gaur egun tramitazioko administrazio-aldi desberdinetan dauden zentral termikoak handitzeko proiektuak onesten badira; izan ere, zentralak handitzen badira CO<sub>2</sub> emisioak ere handituko dira, bistakoa denez. Halaber, ingurumenerako eta osasunerako ondorio txarrak areagotu egiten dira 400 MW-ko potentzia nominal elektrikoko lau zentral termiko ezartzen badira, elkarrengandik kilometro bat baino gutxiagora eta hirigunetik 500 metro eskasetara, urtean 7.500 orduko jardunarekin eta ibaiko uraren hartunearen emaria 1200 litrokoa segundokoa bada, lauen artean.

Iragan maiatzaren 31n argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean Elerebro S.A. enpresak sustatutako ziklo konbinatuko zentral termikoa handitzeko proiektuari buruzko ingurumen eraginaren adierazpena. Adierazpen hori akats, hutsune, gabezi eta kontraesan multzo bat da; izan ere, emisioak ebaluatzen metodoak ez dira zorrotzak, kutsadura maila errealek gutxiesten dira, ozonoak landartzen duen eragina alde batera uzten da eta airean dagoen ozonoaren balioei dagokienez, jada indarrean ez dauden herritarrei alerta emateko gehien-go mugak erabiltzen dira, besteak beste.

Hori guztia dela eta, Gobernuak Kiotoko konpromisoak betetzeari buruzko aurreikuspenak gero

eta ezkorragoak dira, eta bistakoa da proiektu hori bateraezina dela Foru Gobernuak prestatzen ari den Nafarroako energia plan berriarekin, zeinen bidez aurreikusten baita 2010. urterako energia elektrikoaren auto hornikuntza lortzea soilik energia berriztagarriak erabilia.

Finean, bi proiektu horiek beharrezkoak ez diren gehiegizko ekipamenduaren eredu garbia dira, eta ingurumenean duten eraginak ez du inolako justifikaziorik, are gehiago elektrizitate eskaera bermatuta badago 2011. urtera arte, Gobernuak berak eginiko adierazpenen arabera, eta 2005eko urtarrilaren 1ean instalatutako potentzia 66.784 MGW izanda, gaur arteko elektrizitate eskaeraren gailurra urtarrilaren 27koa izan bazen -43.708 MGW-, Red Eléctrica Española emandako datuen arabera.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko Gobernuak premiatzen du:

1. Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A. enpresak sustatutako Nafarroako Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoa handitzeko proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena ezeztatu eta zentral hori handitzeko baimena emateko prozesua eta Iberdrolak sustatutako Nafarroako Castejónko ziklo konbinatuko zentral termikoa handitzeko proiektua geldiaraz ditzan, esleipenen plan nazionalaren aplikazioaren ondorioz -izan ere, plan horretan ezartzen denez, CO<sub>2</sub> emisioak pixkana murriztu egingo dira 2005-2007 aldiran, eta oraindik ahalegin handiagoa egiten da 2008-2012 aldiran, Gobernuak Kiotoko Protokoloa berrestearrekin negutegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuei buruz hartutako konpromisoekin bat- eta Klimaren Kontseilu Nazionalak onetsitako "Espainiaren estrategia klima aldaketaren aurka" agirian jasotako neurriak garatze aldera, bistakoa baita aipatu proiektuak xedapen horiekin bateraezinak direla.

2. Halaber, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du zentral horiei dagozkien udalez gaindiko proiektu sektorialak tramita ez ditzan, eta tramitazio prozesuan badaude, departamentuak aurkako txostena eman dezan.

Iruñean, 2005eko abuztuaren 25ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Ministerioko Kalte Klimatikoan Batzorde iraunkorren parte ez hartzeari buruzkoa.***FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Ministerioko Kalte Klimatikoan Batzorde iraunkorren parte ez hartzeari buruz foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Ministerioko Klima Kalteen Bulego Iraunkorren parte hartzeari buruzko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Proposamenaren zioak

Nekazaritza Ministerioak Nekazaritza Ministerioaren Klima Kalteen Bulego Iraunkorra sortu zuen lehortearen afera aztertu eta koordinatzeko. Organo horrek bilerak egin ditu urtarrietik hasita, eta autonomia erkidegoek parte hartzen dute bilera horietan. Hain zuzen, lehorteari dagokionez, hainbat bilera egin dira ekainaren 20ko 10/2005 Errege Dekretu Legearen edukia koordinatzeko eta, ondoren, Errege Dekretua garatzen duen Ministerio Aginduaren edukia koordinatzeko. Nafarroako Gobernuak ez du bilera horietan parte hartu, ezta parte hartzeko interesik agertu ere.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Zergatik Nafarroako Gobernuak ez du parte hartu Nekazaritza Ministerioko Klima Kalteen Bulego Iraunkorrek lehortearen afera aztertzeko egin dituen bileretan?

- Lehorte Nafarroako nekazari eta abeltzainei eragiten dien arazotzat hartu zen?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 4an.

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Rivas

## **Galdera, abeltzaintzaren sektorean lehortearen ondorioz hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea abeltzaintzaren sektorean lehortearen ondorioz hartu beharreko neurriei buruz foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura kontseilari Echarte jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Lehorte delata eta abeltzaintza jasaten ari den egoera kezagarria ikusirik, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Zer ekimen jarri ditu abian Nafarroako Gobernuak egoera horri erantzuteko? Zer neurri hartzeko asmoa du Gobernuak abeltzaintzaren sektorean izandako ondorioak leuntzeko eta lehorteak eragindako galerak konpentsatzeko?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

## **Galdera, Iruñerriko Mankomunitateak taxi lizentziak adjudikatzeak sortutako dirusarrereri buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Iruñerriko Mankomunitateak taxi lizentziak adjudikatzeak sortutako dirusarrereri buruz foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion

Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen 5.3 artikulua xedatutakoaren arabera,

udalek edo baterako zerbitzurako eremuetako toki entitate eskudunek eskubidea izanen dute, hain zuzen ere, lizentziak emateko prozeduretatik sortzen diren dirusarrerak hartzeko. Arau beraren 50.4 eta 51. artikuluetan xedatzen denez, dirusarrera horiek eta baterako zerbitzurako eremu bakoitzeko toki entitate eskudunaren baliabide ekonomikoak hiri garraioko sistemak eremu horretan zerbitzua emateari loturik egonen dira.

Hain zuzen, foru lege proiektuaren tramitazioan Iruñerriko taxi lizentzia berrien adjudikazioaren ondorioz sortutako dirusarreren xedeari buruz piztu zen eztabaidarekin lotuta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak esan zuen, 2005eko maiatzaren 24an Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldian, Gobernuak igorritako testuaren helburu nagusietako bat zela "garraiotik lortzen diren baliabide publikoak garraio publikoan inbertitzea", eta horixe espresuki arautzen zela, "ez daitezzen Iruñerriko hiri mugikortasun publikoaren sustapena ez den beste erabileraren batera bideratu".

Azaldutakoarekin kontraesanean, Iruñean argitaratzen den egunkarietako batek Luis Ibero Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren adierazpen batzuk jaso zituen abuztuan, entitate horrek adjudikatu behar dituen taxi lizentzien kostuari buruz, eta antza denez Mankomunitateak berak emandako informazio hau erantsi zuen: "Merkatuan 90 lizentzia berri jartzeko lehiaketaren bidez jasotzen diren ia 12 milioiak baimen berriak ematea geldiarazi zuten sei udalen artean banatuko dira. Zehazki, udal horiek dira Iruña –bildutakoaren % 83,87 jasoko du-, Barañain (% 7,38), Zizur Nagusia (% 5,38), Aranguren, Eguesibar eta Atarrabia (% 1,08 bakoitzak). Hartutako erabakiaren arabera, bildutako diru guztia eskualdeko garraioaren defizita ordaintzeko erabiliko da; hori dela eta, Mankomunitateak zenbateko horiek kenduko ditu kontzeptu horregatik udal bakoitzak egin behar dituen ekarpenetatik".

Mankomunitateak asmo horiek gauzatuko balitu, aipatu Taxiari buruzko Foru Legearen xedapenak urratuko liriateke; izan ere, baterako zerbitzurako eremuetako entitate titularrak, hau da, Iruñerriko Mankomunitateak, ez lituzke kudeatuko lizentzia berriengatik lortutako dirusarrerak Iruñerriko garraio publikoa hobetzeko. Aldiz, Mankomunitate hori osatzen duten hainbat udalek ohiz kanpoko dirusarrerak jasoko lituzkete, eskualdeko garraioari egin beharreko ekarpenetik kentzeko zeharbidetik, eta litekeena da beste xede batzuetarako erabiltzea. Legea betetzen deneko itxura formalaren atzean, praktikan taxi zerbitzua dela eta sortutako dirusarrerak ez liriateke eskualdeko garraio sistemara iritsiko.

Aipatu dirusarrerak soilik sei udalen artean banatzeko asmoa jada islatu da UPNk eta CDNk aurkezturiko mozio baten bidez Zizur Nagusiko Udalarekin sinatutako itun batean. Itun horren bitartez, udala taxi zerbitzu mankomunatuari atxikitzeke baldintza gisa ezartzen da dagokion kuota jasotzea.

Hori dela eta, eta kontuan hartuta Nafarroako Gobernuari dagokiola Iruñerriko hiri garraioaren plana onestea, eta, ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legearen 5. artikuluan xedatzen denez, plan horretan jaso behar direla, beste aurreikuspen batzuek gainera, inbertsioen programazioa, planaren exekuzioari buruzko ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa, tarifen markoa eta tarifen dirusarreraren bitartez kostu osotik zenbat estaliko den zehaztea, eta planaren helburuak lortu ahal izateko zerbitzuen titular den entitateari zer aurrekontu-baliabide eta dirulaguntza esleitu behar zaion zehaztea, Gobernuak galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zer aurreikuspen jasotzen dira gaur egun prestatzen ari den Iruñerriko hiri garraioaren planean dirusarrerei dagokienez, eta bereziki Iruñerriko Mankomunitateak taxi lizentziak adjudikatzeagatik sortuko direnei dagokienez?

Baliteke taxi lizentzia berrien adjudikazioa dela eta sortzen diren dirusarrerak Mankomunitateak kudeatu ordez udal batzuen artean banatzea. Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak horri buruz?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bisitetarako egun dagoen protokoloari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bisitetarako egun dagoen protokoloari buruz foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Departamentuari, ahoz erantzun diezaien Osoko Bilkuran:

Iragan abuztuaren 26an Kultura eta Turismo kontseilariak bisita egin zuen Zigako San Lorenzo

elizara, herri horretako udalari jakinarazi gabe eta bere talde politikoko kidez bakarrik lagunduta.

Parlamentari honen ustez, jokabide horrek azalpena behar du; izan ere, nafar guztien Gobernu kontseilari batek halako alderdikeriaz jokatzeak, errealitate instituzionala –kasu honetan, Baztangoa– kontuan hartu gabe, duen karguaren ikuspegi erabat gaitzesgarria eta karguarekiko errespetutik eta Nafarroako errealitate instituzionaletik urrun dagoena adierazten du.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Lehen. Kontseilariak egiten dituen bisitetan jarraitzen den protokoloa, bisitatutako tokietako agintariei dagokienez.

Bigarrena. Zergatik ez zion jakinarazi Baztango Udalari abuztuaren 26an bisita eginen zuela, hedabideei jakinarazi zitzaien modu berean (behintzat)?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean inurri hegalaria agertu zirela-eta aldi baterako itxi izanari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean inurri hegalaria agertu zirela-eta aldi baterako itxi izanari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osasun Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, ahoz erantzuteko Osasun Batzordean.

Iragan abuztuaren 9an ondoko informazioa agertu zen Foru Komunitateko hedabide batean:

Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitateko erabilera anitzetarako gela itxita egonen da hurrengo 15 egunetan, ira-

gan larunbatean inurri hegalariai agertu zirela-eta. Bi aste horietan enpresa espezializatu batek ospitaleko gela horretan agertutako intsektuak hilko ditu, eta aire girotuaren sistema mantentzeaz arduratzen den enpresak, berriz, hozte-sistemaren tutu batek duen pitzadura konponduko du, hortik sartu baitziren intsektuak.

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak atzo prentsa agiri baten bidez jakinarazi zenez, "jada ez dago intsekturik" gela horretan, eta aldi baterako ixteak ez du eragotziko ospitale horretako Zainketa Intentsiboetako Unitatearen ohiko jarduna.

Guztira hamar ohe gutxiago daude, baina Osasun Departamentuak aurreikusi duenez, unitate bereko laguntza koronarioko gelan eta Nafarroako Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean artatuko dira hurrengo bi asteetan sortzen diren larrialdi guztiak.

Bitartean, gela horretan ingresatuta zeuden zazpi gaixoak beste toki batzuetara eraman zituzten eta han jarraitzen dute. Horietatik sei Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitateko beste gela batera eraman zituzten; zazpigarrena, aldiz, Nafarroako Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatera.

Beste batean, Nafarroako Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean ingresatuta zegoen gaixo baten familia konturatu zen larba batek habia egin zuela gaixoaren gorputzeko atal batean. Hori duela gutxi gertatu da –galdera hau egin dudana egunean gaixoak ospitalean jarraitzen du–. Gertakizun horiek oso larriak dira eta Osasun

Departamentuak ezin du arazoa konpondu esanez gela aldi baterako ixteak ez duela Zainketa Intentsiboetako Unitatearen jarduna eragotziko.

Administrazioa gertakari horien arduraduna da eta bere eginkizuna da osasun zentroetan halakorik gertatzea saihestea. Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dut:

1.- Zer baliabide jarriko ditu abian administrazioak antzemandako kasuak bezalakoak berriro gerta ez daitezen?

2.- Zer baliabide dituzte ospitaleetako mantentze-zerbitzuek halako gertakariak behin eta berriro ez gertatzeko? Ba al dago asmorik orain dauden baliabideei beste batzuk gehitzeko?

3.- Zer baliabide ditu Osasun Departamentuak Bideko Ama Birjina Ospitalean gertatutako larrialdia bezalako kasuetan Zainketa Intentsiboetako Unitateko gaixoak zaintzeko, baldin eta Nafarroako Ospitaleko zerbitzu horretako ohe guztiak beteta badaude?

4.- Zer giza baliabide daude Nafarroako Ospitalera bidaltzen dituzten gaixoak artatzeko?

5.- Eman dezagun Bideko Ama Birjinaren Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean larrialdiren bat gertatzen dela eta, horren ondorioz, adingabekoren bat lekualdatu behar dela. Kontuan hartuta Nafarroako Ospitaleak ez duela haurrentzako zerbitzurik, zer aurreikuspen du departamentuak halako egoera baterako?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, zenbait sendagilek egindako grebaren ondorioz sortutako atzerapenari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea zenbait sendagilek egindako grebaren ondorioz sortutako atzerapenari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osasun Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellanok Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, ahoz erantzuteko Osasun Batzordean:

Osasun publikoko hainbat medikuk eginiko greba dela-eta, bihotzeko ebakuntzekin zerikusia duen guztiak atzerapen handia jasan du. Horri gehitu behar zaizkio programatuta dauden ebakuntzak. Horrek itxaron zerrendak handitzea eta, bistakoa denez, gaixoentzako arriskua, egonezina eta deserosotasuna ekar ditzakeela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Ospitale publikoetako hainbat medikuk eginiko greba dela-eta, zein da egoera, atzerapenei, dagokienez, galdera erantzuteko egunean?

2.- Zein da programatutako ebakuntzetarako zerrendaren egoera galdera erantzuteko egunean?

3.- Zer neurri hartu behar ditu Osasun Departamentuak ospitale publikoetako hainbat medikuk eginiko greba dela-eta sortutako atzerapen egoerari aurre egiteko?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

**Galdera, harzuriaren sektorea suspertzeko hartutako neurriei buruzkoa.***FORU PARLAMENTARI ELMA SAIZ DELGADO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea harzuriaren sektorea suspertzeko hartutako neurriei buruz foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egindako galdera. Galdegi-leak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saiz Delgadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun ditzan:

2005eko maiatzaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiari zuen harzuriaren sektorea bizkor zezan.

Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoaren arabera, 2005. urtean zehar, enpresari eta gizarte eragileen lankidetzarekin eta adostasunarekin, ondoko neurriak hartu eta gauzatu behar zituen, gaur egun premia eta bideragarritasun handiena dutenei lehentasuna emanda; bereziki, presazkoenei eta sektoreak gehien eskatzen ditueni:

- Teknologia zentro bat sortzea, harzuriaren ikerketa eta garapena bultzatzeko.

- Nafarroako harzuriaren jatorrizko deitura sortzea.

- Harzuria eta bere aplikazioak sustatu eta ezagutarazteko kanpainak bultzatzea.

- Harzuriaren erabilera sustatzea nazioko eta munduko arkitekto eta diseinatzaileen artean.

- Harzuriaren sektoreko enpresak nazioarteko merkatuetan sar daitezen erraztea.

- Sektoreko enpresek esportazio-partzuergoetan parte har dezaten sustatzea.

- Enpresen kudeaketa hobetzea sustatzea.

- Tailer-eskola edo enplegu-tailer bat sustatzea.

- Lanerako prestakuntza ekintzak sustatzea, langile kualifikatuen eskasiari irtenbidea aurkitzeko.

- Enpresen arteko lankidetzak bultzatzea, harzuriaren sektorea dinamizatzea lortzeko.

- Emakumezko langileak kontratatzeari buruzko sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak garatzea.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Gaur arte, zer jarduketa gauzatu ditu Nafarroako Gobernuak aipatu erabakia betetze aldera?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

## **Galdera, udalei laguntza teknikoa emateko bulegoak abian jartzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea udalei laguntza teknikoa emateko bulegoak abian jartzeari buruz foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregulamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak

aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ahoz erantzun ditzan Osoko Bilkuran:

35/2002 Foru Legean ezartzen denez, hura indarrean sartu eta urtebeteko epean sortu eta jarriko dira abian udalei laguntza teknikoa emateko bulegoak.

2004ko martxoan epea amaitu zenez, legeak xedatutakoa bete gabe, eta 2006ko ekitaldi ekonomikoa hurbiltzen ari denez, hauxe jakin nahi dugu:

- Zergatik ez dira aipatu bulegoak abian jarri? Noiz aurreikusten da bulego horiek abian jartzea? Nola eraginen die horrek etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko udal bulegoei?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, Tutera eta Ejea de los Caballeros lotzen dituen NA-125 errepidea hobetzeko lanei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Tutera eta Ejea de los Caballeros lotzen dituen NA-125 errepidea hobetzeko lanei buruz foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko

Erregulamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Hemengo egunkarietan agerturiko berrien bidez, foru-parlamentuari honek jakin du Tutera eta Ejea de los Caballeros lotzen dituen NA-125 errepidea hobetzeko lanak hasi behar dituztela eta Herrilan Departamentuak aipatu errepidea ixteko asmoa duela, hurrengo irailaren 5etik hasita bi hilabete eta erdiz, gutxienez.

Azaldutakoa kontuan hartuta, zergatik itxi behar da errepide hori eta erabiltzaileei 35km baino gehiagoko itzulingurua ematera behartu?

Iruñean, 2005eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, Castejóngo zentral termikoak osasunean nahiz ingurumenean dituen ondorioei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Castejóngo zentral termikoak osasunean nahiz ingurumenean dituen ondorioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan uztailaren 21ean, Erriberako Ecologistas en Acción taldeak jendaurrean salatu zuen Nafarroako Gobernuak hamabost aldiz ere urratu duela abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretua. Errege Dekretu horren arabera, ozono troposferiko gas kutsagarriaren kontzentrazio handia

dagoenean, ez litzateke kirol jarduerarik edo ahalgin fisikorik egin behar kanpoan, eragin handieneko orduetan. Aipatu taldeak salatu duenez, kutsadura maila horren eraginpean denbora laburrez egotea arriskutsua da giza osasunarentzat, eta administrazio eskudunek informazio gaurkotua eman behar dute. Betebehar hori ere ez da bete ordea. Kutsadura mailaren muga hiru egunetan gairatu zen; hain zuzen, uztailaren 13, 14 eta 16an, eta kutsadura indizeak Arguedaseko 180, 28tik –uztailaren 14an, 17:00etan– Tuterako 199,58ra –egun bereko 16:00etan– bitartekoak izan ziren.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zer txosten ditu Nafarroako Gobernuak Castejóngo zentral termikoak ingurumenean eta nafarren osasunean duen eraginari buruz?

– Zergatik ez da bete abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretua?

– Zer neurri hartu dira arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2005eko uztailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, “Reyno de Navarra” irudiaren publizitatea egiten duten kirol taldeei dirulaguntzak emateari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, “Reyno de Navarra” irudiaren publizitatea egiten duten kirol taldeei dirulaguntzak emateari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Hedabideen bitartez jakin dugu Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ematen dizkiela “Reyno

de Navarra” lema bidez Nafarroako irudiaren publizitatea egiten duten kirol taldeei. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Zenbat kirol talderi eskaini zaie dirulaguntza hori?

Zenbat taldek onartu dute eta zenbatek ez?

Zenbateko dirulaguntza eskaini zaio talde bakoitzari?

Zein irizpide erabiliko dira dirulaguntzak emateko?

Ba al da beste entitaterik, kirol arlokoa edo bestelakoa, Nafarroako publizitatea egiteko eskaintza jasoko duenik?

Zenbat diru erabiliko da guztira halako jardueretan Reyno de Navarra marka sustatzeko?

Aurrekontuko zein kontusailen kargura?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, gobernuz kanpoko zenbait erakunderi 1996az geroztik funtsak itzultzeko irekitako espedientei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, gobernuz kanpoko zenbait erakunderi 1996az geroztik funtsak itzultzeko irekitako espedientei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Parlamentuko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioako kontseilari Palacios jaunak iragan uztailaren 24an Nafarroako egunkari bati emandako elkarrizketan adierazi zuenez, 1996. urtetik 42 espediente ireki dira beste hainbeste GKE-ek funtsak itzul ditzaten. Espediente horiek ukitutako erakundeak dira, besteak beste, Mugarik Gabe, SOS Cuba, Sodepaz, Pro Perú, Farmacéuticos Sin Fronteras, Arquitectos Sin Fronteras, Unicef, Fundescoop edo Elizbarrutiko Caritas.

Adierazpen horiek Alderdi Popularrarekin nabarmen loturiko Humanismo y Democracia fundazioak eginitako funts publikoen kudeaketan antze-

mandako irregulartasunen kasua dela-eta sorturiko kezka eta gizarte-alarmaren testuinguruan egin zituen.

Adierazpen horien arabera, bistakoa da Palacios kontseilari jaunak Humanismo y Democracia fundazioan antzemandako irregulartasunek gizartean eragindako eskandalua baretu nahian zebilela, eta hori dela eta esan zuela egoera horiek normalizat har daitezkeela eta, oro har, kooperazioaren eta garapenaren arloan lan egiten duten ia GKE guztiak ukitzen dituztela.

Harrigarria da, baita kezkgarria ere, ikustea nola garapenari laguntzeko programetarako dirulaguntzak kudeatzeko ardura duen Nafarroako Gobernu departamentuko arduradun nagusia ia-ia entitate horren abokatu defentsari gisa aritu zen, diru publikoaren kudeaketan delituak egin izanaren susmo larria dagonean.

Onartezina da Palacios kontseilari jaunaren ardura duen kargu publiko batek beste 9 GKE espresuki aipatzea Humanismo y Democracia fundazioaren kasuaz ari denean –Mugarik Gabe, SOS Cuba, Sodepaz, Pro Peru, Farmacéuticos Sin Fronteras, Arquitectos Sin Fronteras, Unicef, Fundescoop y Elizbarrutiko Caritas, hain zuzen–, entitate horiei irekitako espedienteen edukiaren eta azken emaitzaren berri zehatzik eman gabe.

Onartezina da kontseilariak bederatzi GKE horiek banan bana aipatzea Humanismo y Democracia fundazioaren kasuaren eskandaluaz ari denean, administrazioak entitate horiei delituren bat egitea egotzi dien, ezgaitu dituzten, edo arau-

hauste larriak edo oso larriak egiteagatik zehapen espedienterik ireki dieten xehetasunez zehaztu gabe, eta, era berean, espediente horien azken emaitzari buruz hitz erdirik esan gabe.

Entitate horiek eskandaluaren erdian aipatzera eta susmopean jartzera mugatu zen kontseilaria. Hori dela-eta, parlamentu-talde honek hauxe jakin nahi du:

1996. urtetik irekitako funtsak itzultzeko 42 espedienteetatik, zenbat eta zein amaitu dira zehapen espediente batekin?

– 1996. urtetik irekitako funtsak itzultzeko 42 espedienteetatik, zenbat eta zein amaitu dira proposamenik edo zehapen espedienterik gabe?

– Zehapen espediente horietatik zenbat eta zein ireki dira arau-hauste larri edo oso larriengatik? Zein izan dira zehapenak kasu horietan?

– Zehapen espediente horietatik zenbat eta zein izan dira GKEaren desgaitzea ekarri dutenak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen deialdieta-  
ra aurkeztu ahal izateko?

– Zehapen espediente horietatik zenbatetan eta zeinetan antzeman dira GKE-ek eginiko delituen zantzuak eta, horren ondorioz, fiskaltzari igorri zaizkio? Zeintzuk ekarri dute administrazioak salaketa jartzea? Kasu horietan zein izan dira antzemandako balizko delituak?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## **Galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroan dagoen itxaron zerrendari, irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza ikastaroei eta Gozamenek programari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andrearen egindako galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroan dagoen itxaron zerrendari, irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza ikastaroei eta Gozamenek programari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko gal-

derak egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion:

1.- Zenbat pertsona daude Etxarri-Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroko patologiarik gabeko azterketa ginekologikoak egiteko itxaron zerrendan 2005eko uztailaren 30ean?

2.- Erantzun al zaio Leitzako ikastetxe publikoko irakasleentzako eta Altsasuko udal haurtzaindegiko hezitzaileentzako prestakuntza ikastaroen eskaerari? Eskualde horretako errealtate soziolinguistikoa kontuan hartuta, irakasle elebidunak kontratatu dira?

3.- Egia al da udazkeneko egiten den Gozamenek programaren jarduerak murriztu egin behar izan direla euskaraz egiterik ez izateagatik? Hala bada, zein jardueratan izan du eragina egoera horrek?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 9an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

## **Galdera, adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruzko legeria indarduna betetzen dela ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak egin duenari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruzko legeria indarduna betetzen dela ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak egin duenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Iragan abuztuaren 21ean, Iruñean argitaratzen diren egunkarietako bateko erreportaje batean azaltzen zen nola 18 urtez beheitiko pertsona bat Iruñeko zazpi estankora eta zazpi tabernara joan zen eta horietan guztietan tabako kaxa bat erosten saiatu zen. Establezimendu horietatik 12tan arazo-

rik gabe erosi ahal izan zuen, eta soilik bi establezimendutan eskatu zioten nortasun agiria eta, azkenik, ez zioten tabakorik saldu.

Tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzko otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legearen 19. artikuluan ezartzen denez, Nafarroako Foru Komunitatean debeku da tabakoa, haren produktuak, haren produktu-multzoak edo haren imitazioak dohainik edo diru truk 18 urtetik beheikoei saldu, hornitu edo banatzea.

Foru Lege beraren 25. artikuluan ezartzen denez, Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legean aipaturiko osasun arloko agintariei, alegia, Nafarroako Gobernuari, Osasun Departamentuko kontseilariari eta zuzendari nagusiari eta alkateei, nori bere esparruan, dagokie foru legea gauzatu eta betetzea, eta ebaluazio, kontrol, ikuskapen eta, kasua bada, egiazaturiko arau-hausteen zehapena. Bestalde, 30. artikuluan arau-hauste larritzat

jotzen da 18 urtez behikoei tabakoa saltzeko debekuaren aurka joatea.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zer jarduketa jarri ditu abian Nafarroako Gobernuak adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruz indarrean dagoen legeria betetzen dela ziurtatzeko? Zein dira arlo horretako ikuskapen zerbitzuari atxikitako gauza eta giza baliabideak?

Zenbat ikuskapen egin dira azken bost urteotan tabakoa saltzen duten establezimenduetan? Zenbat establezimenduk dute tabakoa saltzeko baimena Nafarroan?

Zenbat zehapen espediente ireki dira adingabeei tabakoa saltzeagatik azken bost urteotan? Zenbat zehapen ezarri dira arrazoi horregatik?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, langileen zerrendan funtzionarioen gradua ez argitaratu izanari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, langileen zerrendan funtzionarioen gradua ez argitaratu izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 20. artikuluan ondokoa xedatzen da: "1. Nafarroako administrazio publikoek haien zerbitzuko funtzionario

guztien zerrenda prestatuko dute urtero. Bertan funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua, administrazio egoera agertuko dira, baita erregelamendu bidez zehazten diren gainerrako inguruabarrak ere. 2. Zerrenda hori urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da".

2005eko abuztuaren 24ko 101. Nafarroako Aldizkari Ofizialean uztailaren 27ko 100/2005 Foru Dekretua argitaratu zen; haren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa onetsi zen. Aipatu foru dekretuaren eranskinetan langileen zerrendak ere agertzen dira. Zerrenda horiek, plantilla organikoaren gisara, 2005eko apirilaren 2koak dira.

Bestalde, aipatu langileen zerrendetan ez da agertzen funtzionarioen gradu pertsonala.

Plantilla organikoa eta langileen zerrendak abenduaren 31 ez den egunean onestea eta funtzionarioen gradu pertsonala ez agertzea praktika akasduna da; izan ere, gauza bera gertatu da

aurreko urteetan. Edonola ere, legeak xedatutako-aren urraketa nabarmena da.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zergatik Nafarroako Gobernuak sistematikoki urratzen du Nafarroako Administrazio Publikoen

Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 20. artikuluan ezarritakoa?

Ba al du Nafarroako Gobernuak legea betetze-ko asmorik? Zer asmo du Gobernuak, kasua bada, aurrerantzean aipatu lege xedapenak betetzeko?

Iruñean, 200eko abuztuaren 25an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

## **Galdera, tresna elektriko eta elektronikoei eta hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretuak indarra hartzearen inguruko zenbait gairi buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, tresna elektriko eta elektronikoei eta hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretuak indarra hartzearen inguruko zenbait gairi buruzkoa. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Jada indarrean da oinarritzko lege izaera duen Aparailu elektriko eta elektronikoei eta hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretua, hainbat produktorengan eragina duena, ez bakarrik komunikabideetan hizpide izan diren produktorengan, baita Nafarroan ekoitz daitezkeen beste batzuek ere. Aipatu araudiaren edukia ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

1. Departamentuak ba al du asmorik arlo horretako foru araudia egokitzeko edo garatzeko? Hala baldin bada, zer epetan?

2. Zer neurri hartu edo hartuko ditu araudia betetzen dela prebenitzeko eta kontrolatzeko?

3. Zer urrats eta/edo itun egin ditu ekoizleekin?

4. Ba al da departamentuak baimendutako kudeaketa sistema integratuak?

5. Zer urrats egin ditu araudiak ukitutako udalerri eta mankomunitateekin? Parte hartu al du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak?

6. Sustatu al ditu ingurumenaren kudeaketarako berezko sistema ziurtatuak edota toki entitateekin lankidetzan? Zein dira?

7. Baldintzak ezarri al ditu hondakin horiek udalerrietan aldi baterako biltegitzako?

8. Ba al du ekoizleen erregistrorik? Hala baldin bada, erantzunarekin batera igortzea nahiko nuke.

9. Ezarri al ditu Errege Dekretuak ukitutako Nafarroako produktuak biltzeari, balioztatzeari, berriz erabiltzeari eta birziklatzeari buruzko helburuak?

10. Zer informazio sistema aurreikusi da herri-tarrek, toki entitateek, ekoizleek, banatzaileek eta jendeak, oro har, gai horri buruz izan ditzaketen zalantzei erantzuteko?

11. Departamentuak aztertu al ditu birziklatzearen kostua eta toki entitateentzako finantza sistema?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 24an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola



## **Galdera, lehortea jasaten ari diren Nafarroako eremuak hautatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, lehortea jasaten ari diren Nafarroako eremuak hautatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Iragan ekainaren 21ean argitaratu zen ekainaren 20ko 10/2005 Errege Lege Dekretua. Haren bidez nekazaritzan eta abeltzaintzan lehorteak eragindako kalteak leuntzeko premiazko neurriak hartu ziren.

Uztailaren 22an, hilabete beranduago, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskatu zion Nekazaritza Ministerioari Nafarroa aipatu errege lege dekretuaren aplikazio esparruan sar zezan.

Abuztuaren 3an, Nekazaritza Ministerioak jakinarazi zion Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari Nafarroa sartuko zutela aplikazio eremuan, baina horretarako beharrezkoa zela Nafarroako Gobernuak lehorteak ukitutako eskualdeen zerrenda igortzea.

Abuztuaren 5ean, Nafarroako Gobernuak lehorteak ukitutako eskualdeen berri eman zuen; hain zuzen, hauexek dira:

– Y (Ipar-mendebaldekoa) eta II. (Pirinioak) nekazaritza eskualdeak, larre, zuhain eta ereiteko patataren kalteak direla eta.

– VII. (Erribera Beherea) nekazaritza eskualdea, lehorreko laborantzak direla eta.

– Bardeako Kanaleko Ureztatzaile Elkarte Orokorren esparruko ureztalurrak. Lehortearen eragina jasan duten eskualdeen hautaketa horrek egonezina sortu du Nafarroako nekazarien artean, batez ere Villafranca eta Cadreita herrietan, bidegabeki baztertu dituztela uste baitute; izan ere, haiek ere zerrenda sartuta dagoen VII eskualdeko nekazariak duten arazo berak dituzte.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

Zer irizpide erabili ditu Nekazaritza Departamentuak lehortearen eragina jasan duten Nafarroako eskualdeak hautatzeko, uztailaren 29ko 2500/2005 Aginduaren aplikazio eremuan sar daitezten? Zehaztu datuen bidez.

Zergatik ez da sartu VI. nekazaritza eskualdea ukitutako eskualdeen artean, lehorreko laborantzak direla eta? Ba al dago erabaki hori justifikatzen duen datu konparaturik?

Ba al da departamentuak lehorteak ukitutako Nafarroako eskualdeen zerrenda aldatzeko aukerarik, baldin eta VI. nekazaritza eskualdeko nekazariak egiaztatzen badute, nekazaritza ustiatuei buruz dituzten datuen bidez, haien ekoizpenek Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritako kaltemaila jasan dutela? Baiezkoan, zer prozedura jarraituko litzateke?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, lehorreak eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen laguntzei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramietera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, lehorreak eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen laguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Iragan ekainaren 21ean argitaratu zen ekainaren 20ko 10/2005 Errege Lege Dekretua. Haren bidez nekazaritzan eta abeltzaintzan lehorreak eragindako kalteak leuntzeko premiazko neurriak hartu ziren.

Errege dekretu hori Nekazaritza Ministerioak horretarako sortu zuen Kalte Klimatikoaren Bulego Iraunkorrek aztertu zuen, autonomia erkidegoen partaidetzarekin egin diren aldizkako bileretan. Aipatzekoa da Nafarroak ez duela parte hartu bilera horietan.

Uztailaren 22an, hilabete beranduago, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, nekazaritza arloko erakundeek eta sindikatuek eta Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak bultzatuta, Nekazaritza Ministerioari eskatu

zion Nafarroa aipatu errege lege dekretuaren aplikazio esparruan sar zezan.

Ondoren, abuztuaren 4an, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zion Nekazaritza Ministerioari lehorreak ukitutako Nafarroako zein eskualde hartu behar diren kontuan aipatu errege dekretua aplikatzeko.

Gaur egun badakigu estatuak zer laguntza eman behar dizkien Espainiako nekazariei eta abeltzainei. Egia da Nafarroari eragiten dioten estatuko neurriak Gizarte Segurantzari dagozkionak direla, eta arlo horretan kutxa bakarra dagoenez estatuan, bidezkoa da Nafarroako nekazari eta abeltzainek ere laguntza horiek jasotzea. Hala ere, gure foru araubidea, eskumenak, zerga sistema berezia eta itun ekonomikoa direla eta, ezinezkoa da errege dekretuak jasotzen dituen beste neurri batzuen aplikazioa.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Zer eta nolako laguntzak aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako nekazariei eta abeltzainei lehorreak eragindako kalteei aurre egiteko?

Gobernuak dirulaguntzak emateko asmoa baldin badu:

- Noizko aurreikusten da dirulaguntzak ordaintzea? Zein izanen da aurrekontu-atxikipena?
- Zer nekazarik eta abeltzainek jaso ahalko lituzkete dirulaguntza horiek?
- Nekazaritzako zer eskualde hartuko dira ukitzat?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, udalei euren lurrek izan dezaketen debaluazioa dela-eta emanen zaien ordainari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, udalei euren lurrek izan dezaketen debaluazioa dela-eta emanen zaien ordainari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Gobernuak ba al du asmorik udalantzako laguntza edo ordainik ezartzeko, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) aplikazioaren ondorioz euren lurrek izan dezaketen debaluazioa dela-eta?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleko zerbitzu zentralak sanferminetan izandako funtzionamenduari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Nafarroako Ospitaleko zerbitzu zentralak sanferminetan izandako funtzionamenduari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ohikoa da sanferminetan Nafarroako Ospitaleko Zerbitzu Zentralak, zehazki, analisisekin zerikusia dutenak, itxita egotea.

Espezialistaren batek lagin bat bidaltzen badu laborategira azter dezaten, eta ohikotzat har daite-

keenaren barruan badago, geldiaraztea larria da, baina are larriagoa da larrialdi bat denean; izan ere, analisiaren emaitza izatea beharrezkoa da tratamendu egokia ezartzeko.

Parlamentu-talde honen ustez, sanferminetan ixte hori zuzendu behar da eta ez da berriro errepikatu behar hurrengo urtean.

Administrazioak baliabideak ditu eta erabili behar ditu, zerbitzuek urte osoan zehar modu egokian funtziona dezaten.

Gai hori Osasun Departamentuaren ardurapekoa denez, eta arazoa konpontzea berari dagokionez, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ba al du ospitaleko jokabide horren berri?

2.- Ba al du epe laburrean konpontzeko asmorik?

3.- Departamentuak uste badu zerbitzuak urte osoan modu erregularrean funtzionatu behar duela, nola konpondu asmo du arazoa?

Iruñean, 2005eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, obra-hondakindegia sortzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, obra-hondakindegia sortzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Eraikinen erauzketatik eta eraikuntzatik datozen hondakin, lur eta materialak uzteko Ardana-

tzen (Eguesibar) egokitutako azken gunea ia gainezka dago iragan uztailetik; hain zuzen, abian jarri zenetik hamalau hilabetera. Hondakindegia hori ia gainezka egon arren eta arazoa konpontzeko moduren bat aurkitzea beharrezkoa den arren, jakin ahal izan dugu Ingurumen Departamentuak lehenbailehen beste hondakindegia bat sortzeko baimena emateko zain daudela hura eskatu dutenak. Hondakindegia berria Espartza-Galarren egiten litzateke; hain zuzen, gunea hori eta Araturiko beste bat udalez gairikiko proiektu sektorial deklaratu ziren 2001ean.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

–Aurreikusirik al du Ingurumen Departamentuak arazoa konpontzeko zerbaitegitea?

– Zer epetan hartuko dira behar diren erabakia aipatu arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2005eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zenbateko dirulaguntzak eman dizkio Nafarroako Gobernuak Corporación Siderurgia Integral y Aceralia enpresari –eta horren ondoren negozioa ustiatzen jarraitu duten enpresei, Arbed taldea sartu ondoren eta Arcelor, Aceralia Transformados eta abar eratu ondoren– enplegua sortzeagatik, inbertsioengatik, ingurumena dela-eta edo beste arrazoi batzuegatik 1994. urtetik hasita orain arte? Zehaztu urteka eta lantokiak dauden herrien arabera.

Iruñean, 2005eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, Ibilgailuen Azterketa Teknikorako instalazioei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Ibilgailuen Azterketa Teknikorako instalazioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko irailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Ibilgailuen Azterketa Teknikorako zenbat instalazio ari dira jardunean Nafarroan beharrezkoa den baimenarekin? Noiz jarri ziren abian eta noiz arte dute emakida? Ba al dago asmorik gaur egungo emakidak behin-behinekoz luzatzeko eta/edo emakiden edo instalazioen kopurua handitzeko? Zenbat, zer eperako eta non jarriko dira?

Iruñean, 2005eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa.**

**Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda**

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko deialdia 2005eko uztailaren 22ko 87. NAO-n eta 2005eko uztailaren 4ko 74. NPAOn argitaratu zen; deialdi horren 4. oinarrian xedatuarekin bat, honako erabaki hau hartu dut:

**ERABAKIA:**

**Lehena.** Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda hau onestea:

a) Onartuak:

Anaut Marco, Virginia  
Andrés Uriarte, Xabier  
Armendáriz Espina, Ana  
Armendáriz Recalde, Araceli  
Arraiza López, Maite  
Artazcoz Colomo, Jorge  
Asurmendi Acarreta, Olga  
Ayechu Redín, Helena  
Ayesta Zardoya, Edurne  
Balduz Gil, Jorge  
Barbarin López, Ana Belén  
Barber Zugaldía, Ana  
Barber Zugaldía, Beatriz  
Cabornero Marco, Alicia  
Calvo Regueiro, José Luis  
Carrera García, Celia  
Davila Jiménez, Miriam Saloa  
Dorda Amat, Gonzalo  
Eguaras Tirapu, Beatriz  
Erro Ariz, Aitziber  
Eslava Satrústegui, María Eugenia

Fernández Lucas, Jesús M.<sup>a</sup>  
Garde Macias, Elena  
González Azparren, Alfredo  
Itoiz Lleida, Uxue  
Jueas Pérez, María Carmen  
Lizarbe Chocarro, Javier  
Marticorena Chapa, Xavier Iñigo  
Matellanes Matellanes, M.<sup>a</sup> Ángeles  
Murillo Portillo, Ignacio  
Naranjo Aguedo, Visitación  
Otermin Irujo, Irantzu  
Pagola Vidaurre, Miguel Ángel  
Ramírez Fernández, Pedro  
Sáinz de Vicuña Gil, M.<sup>a</sup> Nieves  
Senar Solís, Blanca Reyes  
Soto Cotorro, Irune  
Tejedor Alonso, Ana María  
Turmo Pallás, Jorge  
Vilella Lasasosa, Cristina  
Zabalza Molina, David  
Zozaya Garralda, Sergio  
Zubiria Bermejo, Nuria  
Zumarraga Luzuriaga, Mikel

b) Baztertuak:

Inor ere ez.

**Bigarrena.** Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamar egun baliouduneko epean, interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahaliko dituzte zerrenda horren aurka, eta akatsik izan bada horiek zuzendu.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,27 »	